

Aingeru Epaltza

Tesawit, Anya, Dihya

Mendi magaleko herrixka batean sortu zen Tesawit, neguan elurrak ilargiarekin bat egiten duen bazter garaietan. Ez zuten eskolara eraman, bere anaiak ez bezala. Hala erabaki zuen Tesawiten aitak:

-Neska batek ez du zertan irakurtzen edo idazten jakin etxean lanean aritzeko.

Inork ez zuen protestarik batere atera horregatik.

Tesawit 13 urte zituela ezkonarazi zuten Idirrekin. Ez zen gizon txarra, bai betiko moldeei atxikia. Idirrekin, zazpi seme-alaba izan zituen. Haietarik, hiru gelditu zitzaizkion bizirik, bi mutil eta neska bat. Mutilak eskolara joan ziren. Neska, Anya, etxean gelditu zen, Idirrek erabakita:

-Neska batek ez du zertan irakurtzen edo idazten jakin etxean lanean aritzeko.

Alferrik aritu zitzaion Tesawit, negarrez, halakorik ez egiteko erreguka.

Anya 15 urte zituela ezkonarazi zuten Aberkanekin. Hiri handira joan zen, bere senarrarekin batean. Geroztik, ez du maiz ikusi Tesawitek. Anyari, hala ere, inoiz ez zaio ahanzi bere seme-alabak herrira ekartzea, amak ezagutzeko, haur berri bat munduratu duen bakoitzean. Bisita horietariko batean ezagutu zuen Dihya, bere alabaren alaba ttikia. Bertze batean jakin zuen Aberkanek eskolara joatea debekatu nahi izan ziola Dihyari. Betiko argudio zaharra erabili zuen noski:

-Neska batek ez du zertan irakurtzen edo idazten jakin etxean lanean aritzeko.

Una de cada cinco personas no puede leer este texto

Baina oraingoan bai, alaba eskolara joatea lortu zuen Anyak. Tesawuitek egun hartan ere negar egin zuen, pozez alabaina.

Tesawuitek 60 urte inguru ditu. Idir hil zaionetik, seme baten etxean bizi da, mendi arteko bere sorterrian. Berriki arte, semeak edo bilobaren batek irakurri behar izaten zizkieten Anyak hiri handitik bidaltzen zizkion gutunak. Izan ere, Anyak irakurtzen eta idazten ikasi du. Noiz eta 40 urteren itzulian. Aberkanek ez zuen nahi, baina berriz ere amore eman behar izan zuen bere senarrak. Gutun horietariko batean, berri latza eman zion Anyak bere amari: Europara abiatua zen bere alaba Dihya, 18 urte bete berritan eta ezkongabe abiatu ere. Egun hartan ere Tesawuitek ez zuen negarra begietatik urruti.

Duela zenbait hilabetez geroztik, Tesawuitek berak irakurtzen ditu gutun horiek. Bi urtez, zintzo-zintzo joan izan da eskolara. Lan handia eraman dio. Lotsa zen hasieran. Harro dago egun, paper puska horiek bere eskuetan hartzen dituen aldiro.

Gaur urduri dago Tesawuit. Semearen semeak tramankulu berria ekarri du hiri handitik. Telebista txiki baten eta piano txiki baten arteko ezkontzaren kumea ematen du trasteak. Horren bitartez, Europara joan zen ilobaren mezuak hartzen ahalko dituela adierazi diote Tesawiti. Orain, emakumea, pantailari begira dago, irrikan, batere negar arrastorik gabe, Dihyaren izkribua noiz agertuko. Tesawuitek ez daki oraindik tramankulua erabiltzen. Baina ikasiko du, berak ere bai baitu bere bilobari zer kontatua.